

III. ERANSKINA

OINARRIAK

2017/2018 IKASTURTERAKO BI ORDUKO IKASTAROEN DEIALDIA, 2. HIZKUNTZA ESKARIZUNA EGIAZTATUA IZAN (euren lanpostuko eskakizuna) ETA 3. HIZKUNTZA ESKARIZUNA ATERA NAHI DUTENENTZAT.

1.- Helburua

Euskararen II. Plan Gidariari jarraiki (Gobernu Kontseiluak 2013ko abenduaren 19an onartua) haxe da deialdiaren helburua: euren lanpostuko hizkuntza-eskakizuna (2 HE) beteta eduki arren euskara hobetu gura duten langileei aukera ematea lan orduetan ordu biko euskara ikastaroak egiteko.

2.- Ordu kreditu sistema

2005eko azaroaren 30eko aginduen bidez IVAPek eta UPV/EHUK sinatu zuten hitzarmenari jarraituz, **ordu kredituen sistema ezarri** da (2005eko abenduaren 19ko EHAA (239. zk.), I. kapitulua).

Agindu hori 2006ko irailaren 30ean sartu zen indarrean, hau da 2006/2007 ikasturterako. Horrela, ordu kreditu negatiboa dutenek ezin izango dute liberaziorik izan 2017/2018 ikasturterako.

3.- Betebeharreko baldintzak

Deialdi honetan parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

1. UPV/EHUKo administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko kidea izatea, eta 2. hizkuntza eskakizuna gainditua izatea, norberaren lanpostuak duen eskakizuna hain zuzen.
2. UPV/EHUKo administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko kidea izatea (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa eta aldi baterako lan-kontratua duen langilea, lanpostu hutsean zein ordezkioan egon).

4.- Irizpideak lehentasun mailaren arabera

4.1.- Unitate bakoitzaren % 50 gutxienez ziurtatuta geratu behar da.

4.3.- Euskara eskoletara joateko baimenak emateko irizpideak plangintzaren helburu nagusiei lotuta daude eta honako hauek dira lehentasunaren arabera antolatuak: lanpostua kokaturiko unitate mota (AE, A, B, C, D) eta eskatzailearen lan harremana (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa, aldi baterako lan-kontratua duen langilea). Lehentasun honi jarraituko zaio:

- 1) Lanpostuan eskatzen zaien 2 Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- 2) Lanpostuan eskatzen zaien 2 Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratua duten langileak direnean.
- 3) Arestian aipatzen diren ataletan sartzen ez diren gainontzeko langileak, ordezkioak egiten ari diren bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako lan-kontratua duten langileak orokorrean, lehentasuna jartzeko irizpideak honako hauek izango dira:
 - a. Euskara ikasten egon izana 2016/2017.
 - b. Gainditutako euskara maila (lehentasuna mailarik handienak du).
 - c. UPV/EHU lan egindako egunak.

Euskara ikasten egon izana eta maila, gainontzeko langileentzat ere kontutan hartuko da.

5.- Eskaera

5.1.- Ikasturte osorako eskaera

Eskaerak urte osorako izan behar du. Otsailean ez da 2 orduko eskaera berririk onartuko honelako ikastaroetan.

Oharra: Plaza hutsa betetzen ez duzulako edo ordezkioak egiten dituzulako lanpostuz aldatzen bazaituzte bi orduko liberazioa duzun bitartean (lanorduen barruan), jakinarazi egin beharko diozu nagusi berriari liberazioa duzula, nagusi berriak ez baitauka zertan zure liberazioaren berri izan. Nagusiak eragozpenik badauka liberaziorako, Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzarekin jarri beharko da harremanetan eta idatziz azaldu zeintzuk arrazoi dituen baimena ukatzeko. Idatzi hori kontuan hartuta, Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetza izango da azken erabakia hartuko duena.

5.2.- Eskaerak betetzeko zehaztasunak

- 1) Liberazio modulu bakoitzeko eskari bana bete beharko da. (2 ordu lanorduetan, 2 ordu lanorduz kanpo, autoikaskuntza eta beste).
- 2) Komeni da beste ikastaroetan ere izena ematea, 2 ordukoan (lanorduetan) onartuko ez zaituztela ustez gero.
- 3) Eskari orrian eskatzen diren datu guztiak egon beharko dute zehaztuta, batez ere zein herritan, ze ikastaro mota eta zein ordutegitan eskatzen den.
- 4) Ordutegi bereziak direla eta, euskara lanorduz kanpo ikastera behartuta dauden guztiek, 2 ordu eta erdiko lan murrizketa eskuratzeko (onartuak izatekotan), eskaeran "Lanorduetan" jarri behar dute.
- 5) Eskaera egitean, IVAPeke 2.HE gaindituta eduki behar du eskatzaileak. Edota IVAPeke hizkuntza-eskakizunen baliokidetzak erregistroan jasota egotea. Honi buruz informazio gehiago IVAPeke "baliokidetzak" webgunean:

http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedheinf/eu/contenidos/informacion/hizkuntza_eskakizunak_weberria/eu_hizk_esk/baliokidetzak.html

- 6) Aldi baterako kontratua duten langileek eskariarekin batera lan kontratuaren kopia bidali beharko dute. **Eta egiaztatu beharko dute gutxienez 2017ko abenduaren 31ra arteko lan-kontratua dutela.**

5.3.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea **maiatzaren 8tik 17ra** izango da (biak barne). Ez da epez kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

Oharra: eskariak egiteko azken eguna helduta ez baduzu nagusien baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango dituzu baimen horiek. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bidali beharko duzu.

5.4.- Eskaerak non aurkeztu

Derrigorrez, eskaera guztiak erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira.

Oharra: nagusiek baimena ukatuz gero, txostena egin beharko dute **baimena ez emateko arrazoiak azalduta. Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko.** Txostenak Euskalduntze Batzordeari bidali beharko zaizkio, 2 laneguneko epean, Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duenetik kontatzen hasita. Epe hori erreklamazio egunekin bat etorriko da (maiatzaren 29 eta 30) eta erregistro orokorretik bidaltzeaz gain, posta elektronikoz aurreratu beharko dira helbide honetara: arrate.atxa@ehu.eus

6.- Lizentzia erabiltzeko baldintzak

6.1.- Klaseen egutegia eta egindako huts egiteak zuritzea

Ikastaro hauek eskatzen dituzten langileek IVAPeK jartzen duen egutegia onartu behar dute, IVAPeK antolatutako taldeetan baldin badaude. IVAPeK antolatutako taldetik at baldin badaude, kasuan kasuko euskaltegiak ezarritako egutegia bete beharko du ikasleak.

Hau honela, lanorduetan euskara ikasteko onartua izan den langileak ezin izango du beste eratako ikastarorik egin ezta oporretarako egunik hartu (ezinbesteko kausak salbu), baldin eta horrek euskaltegiko klaseetara huts egitea eragiten badio. Horrelakoetan, huts egiteak ezin izango dira zuritu.

Huts egite guztiak posta arruntez edo elektronikoz zuritu behar dira, lizentziei eta baimenei buruzko arautegiarekin bat etorritik.

Ikaslea ez bada joan euskara eskolara laneko arrazoiak direla medio, interesatuak idatzkia bidali beharko du Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzara arrazoiak azalduz eta bere nagusiaren oniritziarekin.

Huts egiteak zuritzen ez badira, langilea eskolatik kanpo utziko du Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzak.

6.2.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko froga

Liberazio hauetan onartutako langileek (bai lanorduetan, bai lanorduz kanpo matrikulak ordaintzen zaizkienean) hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko aldiro egiten diren frogetara aurkeztu beharra izango dute, betiere ondoren aipatuko ditugun urratsak egiten ari badira:

- **Hirugarren hizkuntza eskakizunera** aurkezteko, euskalduntzeko **C1.2.** azpimaila egiten aritzea.

Irizpide hau ez betetzeak liberazio berririk ez eskuratzea ekarriko du.

6.3.- Liberatuta dagoen batek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen badu.

2 orduko liberazioa duen langileren batek 3. hizkuntza eskakizuna lortuz gero, Euskararen arloko errektoreordetzak liberazioa kenduko dio, betiere, IVAPek hutsune hori betetzeko aukera badauka. IVAPek ezinezkoa badu hutsune hori betetzea, langileak lanorduetan euskara ikasten jarraitu ahal izango du ikastaroa bukatu arte, baina horretarako, nagusiaren oniritzia beharko du.

7.- Onartuen zerrendak

Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetza eta Campuseko Errektoreordetzetako iragarki-tauletan, baita Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordetzaren web orrian ere:

<http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/home>

Behin-behineko zerrendak **maiatzaren 26an** argitaratuko dira eta **maiatzaren 29 eta 30** izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko epea. Berauek idatziz zuzendu behar zaizkio Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeari UPV/EHUko erregistroen bitartez eta posta elektronikoz aurreratu helbide honetara: arrate.atxa@ehu.eus

Erreklamazioak aurkeztu ondoren, eta guztiak aztertu ondoren, behin-betiko zerrendak **ekainaren 8tik aurrera** argitaratuko dira lehen aipatutako iragarki tauletan, euskalduntze batzordea bildu ondoren.